

Tenk egiteko unea

1975-1995: hogei urte. Burgos, Carrero, Franco... Urrun gelditu zaizkigu. Iragana da hura guztia; kondaira orrialde bat osatuz; mordoska bat agian. Baina urrun.

1939 Apirilaren 1eko kazetetan hauxe irakur zitekeen letra gaitzetan: «La guerra ha terminado» Eta gure jendeak, piskanaka bederen, esaldiaren funtsa ulertu zuen: «orain artekoari agur, eta frankismoaren barrena abiatzen gara».

Gaur egun, berriz, eta bide beretik, ondoko hau irakurri behar genukeen prentsa osoan: «La postguerra ha terminado. Tanto el franquismo como el post-franquismo se han acabado».


EGIN dezagun tenk, eta ondorioak ausarki atera: «nora eraman gintuen frankismoak? nora ekarri gaituzte post-frankismoari lotutako hogeitau urte hauek?».

Gure herria hiru zati geografikotan puskatuta dago. Eta gure Hegoalde honi dagokionez, (lotsagabeki egun hauetan Alliren esanek gogorazari digutenez), bi instituzio autonomiko ditugu, elkarrekiko arrotz, elkarrekiko gero eta urrunago paraturik.

Erakunde autonomiko horietan, *suntsitua* izan da *euskal nazio proiektua*; desitxuratua, ehortzia, ahantzia. Erakunde horiek gidari daukaten ideia bakarra hau da: *espainiar legetasuna*. Berorren barruan, hori bai, gainerako 15 eskualde 'autonomiko'etan bezalaxe, noizean behin «particularismo regional» delakoaz aipuren bat gerta daitekeelarik.

BAINA Euskal Herria *askatzeko eta batzeko* proiektu *abertzalea*, desagertu egin da errotik, bai Iruñean bai Gasteizen. eta etxurre horietan hau irakurri behar litzateke: «El proyecto nacional vasco ha muerto. ¡Viva el sano regionalismo español!».

Baina, jakina, gogorregi gertatuko litzateke egia honen gordinki aitortzea. Eta horretara datoz Rh-aren espantzuak, eta jeltkideen jokabideek egunero ezin na-



TXILLARDEGI

Idazlea

barmenkiago ukatzen dituztenak (Sukarrietako liturgia antzua barne).

Abertzaletasunaren ehorzketa hotz horretan PNVari dagokio erantzukizun nagusia; eta Arzalluzi zehazki operazioaren mozorroketa. Bere «Josu Lagundi»ko garaietan ikasitakoa jukutriaz erabiliz, vaticanismo huts bihurtu du Arana-Goñirenen Alderdiaren politikagintza: eguneroko praxian Espainiari, dirudunei eta agintariei men egin; artean euskaldunoi, Euskal Herriari, eta zapal dutako guztioi, aingerruen konpainia, arkaingueruarena, eta zeruko lore miresgarria «en el plano de las ideas» aginduz.

HITZ batez: politikagintza, *fartsa* bihurtu dute jeltkideek. Bilboko Apezpikuak -adibidez- euskaraz jakin behar omen du atsolutuki; baina Bilboko Alkate jeltkideak ez. Eta Arartekoak ere ez. Alkate horri, hain zuzen, «ahaztu» egin omen zaio Metro berriko letreroak euskaraz jartzea...

Bidenabar, nork hondatu eta pozoindu du Ikastolen mugimendu miresgarria, eta

«pública/privada» sailkapen ustela be-deinkatu?

Nork zokoratu du auto-determinazioaren aldeko herri-mogimendu esperantzagarria? Zein bihurtu da hemen «Norte»ko pilare nagusi Estatuaren kinkaldi *guztietan*? Nork egin du hemen hantu espanyolista behin eta berriz, eta hamaika aldiz, PSOERI aurpegia garbituz?

FRANKISMOAREN amaierari zegokion esperantza eskerga hura, gerra zikinaren antolatzailearekin eskuz esku jokatuz, autonomismo antzu bihurtu du PNVak; abertzaletasunaren deia bai Alderdiaren barruan, bai kontrolatzen dituen erakundeetan, lardaskatuz, zornatuz eta fundituz.

Hogeitau urte etsigarri hauek pasa ondoren, ozenki aldarrikatu behar dugu: «Bukatu egin da post-frankismoa. Eskandalotan, lapurretan, tortura-garrasi giroan amaitu da. Eta orain, zer?».

DESKALABRO kirats honetan, gudarriak salbatu dira; eta gure preso, deportatu eta deserritu miresgarriak. Sindikalismo abertzalean diharduten aberkideak salbatu dira. Ezker abertzalean nola edo hala ari direnak salbatu dira. Hertsikeriengatik minduak edo baztertuak izan diren aberkide asko ere salbatu dira; nahiz gaur isilik, zoritxarrez. Eta hizkuntz pizkundearen inguruko mogimenduak eutsi dio etsaiaren enbatarri, gogor.

Horra hor oinarri sendo zindoa Euskal Herria autonomismo ustelduaren gainetik aurrera ateratzeko. Horra hor, kasu, *ezinbesteko oinarria*. Zeren gainean eraikiko genuke, bada, Euskal Herria?

Xedea garden: Euskal Herriaren *burujabetza*, adjektiborik gabe. Gaur egun: *abertzaleok bat*. Norantza? Auto-determinaziorantza.

Gainerakoak, gure arteko desberdintasunen eztabaida: bihar. Nor zer den jakiteko bidea? Are ebanjelikoa ere den irizpide hura: *zubaitza frutuetan eza gutzen dela*.